

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Tratamenduaren izena	HISTORIA KLINIKOA
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak	<p>Osakidetza – Euskal osasun zerbitzua / Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza</p> <p>– Araba, 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz</p> <p>Osakidetzako Datuen Babeserako ordezkaria:</p> <p>– Araba kalea, 45 – Vitoria-Gasteiz</p> <p>– DBO-DPD@osakidetza.eus</p>
Tratamenduaren xedea	Pazientearen historia klinikoari buruzko datuak izatea, haren jarraipena egiteko; jarduera asistentziala kudeatzeko; morbiditate-azterketak egiteko; finantza-kudeaketarako; irakaskuntza-jarduerarako; profil geruzatuak sortzeko, premietara egokitutako arreta sanitario integratua/koordinatua emateko, pertsonan zentratuta eta prebentzioa eta ekitatea azpimarratuta; estatistikak eta ikerketa sanitarioa egitea estatistiken ekoizpenerako eta ikerketa sanitarioarako.
Datuak gordetzeko epea	Gutxienez 5 urtez, episodio asistentzialaren altaren ondoren. Agiri Klinikoak Baloratzeko, Aukeratzeko eta Garbitzeko Batzordeak (AKBAGABA) ezarritakoaren arabera antolatuko da.
Tratamenduaren oinarri juridikoa	Lege-eginbeharra betetzea, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean, ekainaren 8/1997 26 Legean (Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa) eta 38/2012 38/2012 Dekretuan (historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta obligazioei buruzkoa) ezarritakoaren arabera.
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. • Osasun Ministerioa • GSIN. • Agintaritza judizialak. • Aseguru-entitateak, lege-aurreikuspenen arabera. • Eremu soziosanitarioa. • Ikerketako eta hobekuntza diagnostikoko (aldez aurreko baimenarekin) erreferentziazko sare europarrak, erakunde medikoak, irabazi-asmorik gabekoak.
Eskubideak gauzatzea	Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango ditu idatzi bat zuzenduta Osakidetza - Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Araba kalea 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz helbidera, NANaren edo beste nortasun-

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

	<p>dokumentu baliokide baten kopia erantsita.</p> <p>Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.</p>
Datuen jatorria eta kategoriak	<p>Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako profesional sanitarioek eman dituzte.</p> <p>Datuak: identifikagarriak; ezaugarri pertsonalak adieraztekoak; osasunarekin loturikoak.</p>
Profilak egitea	<p>Bai, populazioa estratifikatzeko prozesu baten bidez.</p>
Profilak egitearen garrantzia eta ondorioak	<p>Ereduak beharrei egokitutako arreta sanitario integratua/koordinatua emateko balio du, pertsona ardatz izanik eta prebentzioa azpimarratuz.</p> <p>Lortzen diren emaitzei esker, Osakidetzak kalkula dezake nora bideratu behar diren baliabide gehiago (adibidez, paziente gaixoagoak dituzten eta, beraz, baliabide gehiago behar dituzten osasun-zentroak identifikatuz), baita hurrengo urtean osasun-arazo larriak izateko arrisku oso handia duten kasuak identifikatu ere.</p> <p>Estratifikazioa osasun-langileentzat beste tresna bat baino ez da; izan ere, haiek dira osasun-arretarik onena zein den erabakitzearen azken arduradunak, pazientearekin batera.</p>
Profilak egitean aplikatutako logikari buruzko informazio esanguratsua	<p>Estratifikazioa hurrengo 12 hilabeteetako osasun-beharrak zenbatesteko gai den iragarpen-eredu baten bidez egiten da. Horretarako, hainbat aldagai erabiltzen ditu, hala nola adina, sexua eta pertsona bakoitzak dituen gaixotasun garrantzitsuak. Funtsean, prozesuan aztertzen da zer garrantzi izan duten lehenago (aurreko urtean) gaixotasunek, eta gaixotasunen, adinaren eta sexuaren konbinazioek. Garrantzi-mailaren inguruko datu horiek lortu ondoren, orainaldiko datuei aplikatzen zaizkie hurrengo 12 hilabeteetarako aurreikuspenak egiteko (adibidez, bronkitisa badut 400eko garrantzi-maila izango dut, eta 85 urte baditut 500ekoa).</p> <p>Egungo iragarpen-ereduak erregresio lineal eta logistikoetan oinarritzen dira.</p>